# GORLIZKO OSPITALEA
# HOSPITAL GORLIZ




Osakidetza

GORLIZ OSPITALEA
HOSPITAL GORLIZ

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

**GORLIZKO OSPITALEA** / HOSPITAL GORLIZ 1919-2019
**ERAKUSKETA** / EXPOSICIÓN
**HAZTEN JARRAITZEKO EGOKITU** / ADAPTARSE PARA SEGUIR CRECIENDO
**MAIATZAREN 28TIK IRAILAREN 28RA** / DEL 28 DE MAYO AL 28 DE SEPTIEMBRE
**Ekoizpena eta errealizazioa** / Producción y realización: new media DIGITAL
**Argazkiak /** Fotografías: *Irene Larrañaga*
**Itzulpenak /** Traducciones: *MIXER*
**Arotzeria /** Carpintería: *Carpintería Aresti*
**Diseinu eta inprimaketa /** Diseño e impresión: *PRINTHAUS*
**Euskarri metalikoak /** Soportes metálicos: *BERRIZTU*
**Funts dokumentala /** Fondos documentales: *Gorliz Ospitalea Hospital Gorliz*
**Objektu mediko eta zientifikoen bilduma /** Colección de objetos médicos y científicos quirúrgico: *Gorliz Ospitalea Hospital Gorliz*
**Ahizpa Klarisen abitoa /** Hábito Hermanas Clarisas: *Museo de las Hijas de la Caridad San Vicente. Madrid*

# HAZTEN JARRAITZEKO EGOKITU

Ehun urteko aldea dago gaurko Gorliz Ospitalearen eta 1919ko ekainaren 29an ateak ireki zituen Itsas Sendategiaren artean. Erakusketa honek mende beteko historia, bilakaera eta gizartearen premietara egokitzea ospatu nahi ditu. Ehun urteko ibilaldia sei paneletan zehar.

- PAZIENTEA, tuberkulosi osteoartikularrak erasandako lehen umeengandik hasi eta gaur egungo gaixo kroniko eta errehabilitazioan daudenenganaino.
- PROFESIONALAK, laborategi, X izpi eta kirofanoetan aritzen ziren lehen Karitateko Ahizpengandik hasi eta gaur egun ospitaleko lantaldea osatzen dutenganaino.
- TRATAMENDU MEDIKOA, helioterapia eta higienismotik errehabilitazio espezializatura eta paziente kronikoei eta zainketa aringarria behar dutenei arretara.
- KUDEAKETA, Bizkaiko Aldundiak eta euskal gizarteko goi mailako Damen Batzorde batek zuzendutako ongintza zentrotik Osakidetzan integratzera.
- ERAIKINA, proiektuaren jatorrizko ideia 1909an, inspirazioa, arkitektoa, sendategi ereduak eta eraikin modernista honen eraikuntza.
- GERRA ZIBILA, sendategiari zer ekarri zion, ospitalean zeuden umeen ebakuazioa Frantziako balnearioetara eta ondorengo aberriratzea.

Erakusketa honen helburua ez da zentro honen mende beteko existentzian ibilaldi bat egitea bakarrik. Gorlizko Ospitaleak omendu nahi ditu eta eskerrak eman nahi dizkie zentro honek arreta ematea ahalbidetu eta bermatu duten erakundeei, eta baita gaur arteko bere historian parte izan diren profesional eta paziente guztiei ere.

# ADAPTARSE PARA SEGUIR CRECIENDO

Cien años separan el actual Hospital Gorliz del Sanatorio Marino que abrió sus puertas el 29 de junio de 1919. Esta exposición quiere celebrar un siglo de historia, evolución y adaptación a las necesidades de la sociedad. Un paseo por cien años en seis paneles.

- EL PACIENTE, de los primeros niños vizcaínos afectados de tuberculosis osteoarticular hasta los actuales pacientes crónicos y en rehabilitación.
- LOS PROFESIONALES, de las Hermanas de la Caridad iniciales que atendían laboratorio, rayos X y quirófano hasta quienes integran actualmente la plantilla del hospital.
- EL TRATAMIENTO MÉDICO, de la helioterapia y el higienismo a la rehabilitación especializada y atención a pacientes crónicos y paliativos.
- LA GESTIÓN, del centro de beneficencia regido por la Diputación de Bizkaia y una Junta de Damas de la alta sociedad vasca a la integración en Osakidetza.
- EL EDIFICIO, la idea originaria del proyecto en 1909, la inspiración, el arquitecto, los modelos de sanatorio y la construcción de este edificio modernista.
- LA GUERRA CIVIL, lo que supuso para el sanatorio, la evacuación a balnearios franceses de los niños hospitalizados y su posterior repatriación.

El objetivo de esta exposición no es sólo ofrecer un viaje a lo largo del siglo de existencia de este centro. El Hospital Gorliz también quiere rendir homenaje y dar las gracias a las instituciones que han mantenido y garantizado la asistencia a este centro y a cada uno de los profesionales y pacientes que han formado parte de su historia hasta hoy.

# ERAIKINA
# EL EDIFICIO

## GORLIZ, KOKAGUNERIK ONENA / GORLIZ, LA MEJOR UBICACIÓN POSIBLE



**Ahorik aho zabal dabilen kontua da hauxe dela euskal kostalde osoko hondartzarik eguzkitsuena. Egia esan, hareatza honekin batera Bakio, Sopela eta Areetakoak dira argi natural ordurik gehien hartzen dutenak, mendebaldera begira kokaturik daudelako. Ezaugarri honek, bertoko mikroklima moldatzen duten tenperatura leunek eta Astondo mendiaren altzoan kokatuta egoteak eragin zuten Gorlizko hondartza aukeratu izana Gorlizko Itsas Sendategi berria eraikitzeko lekutzat.**

Sustentando en parte la leyenda que atribuye a esta playa más sol que a ninguna otra de la costa vasca, sí es cierto que el arenal de Gorliz, junto con los de Bakio, Sopelana o Las Arenas, son los que más horas de luz natural reciben por su localización occidental. Esta característica, junto con las temperaturas suaves que moldean su microclima y su ubicación, al abrigo del monte Astondo, determinaron que la playa de Gorliz fuera el lugar elegido para levantar el nuevo Sanatorio Marino de Gorliz.

**Gorlizkoa estatuko laugarren itsas sendategia izan zen, eta hormigoi armatuz eraikitako lehena. Bost pabiloitan eratuta zegoen: ospitalea, infekziodunak, Lazareto, Sukaldeak eta jantokia eta Mojen pabiloia (kapera, arropategia eta Karitateko Ahizpen eta zerbitzarien egoitza).**

El de Gorliz fue el cuarto sanatorio marino del Estado y el primero construido con hormigón armado. Estaba articulado en 5 pabellones: Hospital, Infecciosos, Lazareto, Cocinas y comedor y Pabellón de las monjas (capilla, ropero y residencia de las Hermanas de la Caridad y sirvientas).









**Mojen etxea, kapera eta arropategia.**
Casa de las monjas, capilla y ropero.





**Gorlizko Itsas Sendategia.**

El Sanatorio Marino de Gorliz.




**Lazareto.**
Lazareto.




**Ospitalea.**
Hospital.

**Ospitaleak erdigune bat dauka zerbitzu komunetarako eta bi albo-gune erizaindegietarako. Itsas aldeko fatxadako galeria irekiak gaixoen oheak ateratzeko eta helioterapia errazteko diseinatu zituzten. Gela handiek, 5 metroko altuerako sabaiekin, argitasuna eta aireztatzea bermatzen zuten. Mutilak ezker aldean egoten ziren eta neskak eskuin aldean.**

El Hospital tiene un cuerpo central destinado a servicios comunes y dos laterales para las enfermerías. Las galerías abiertas de la fachada marítima se diseñaron para sacar las camas de los pacientes y facilitar la helioterapia. Las amplias estancias, con techos de 5 m. de altura, garantizaban la claridad y la ventilación. Los niños estaban a la izquierda, las niñas, a la derecha.




**Infekziodunen pabiloia.**
Pabellón de infecciosos.







**Sukaldeak eta jantokiak.**
Cocinas y comedores.

**Proposamena 1909an onartu zuten. Orduan proiektuan tarteko zen lantalde bat bidali zuten Europako osasun-instalazio nagusienak ezagutzera. Frantziako Berck Plageko sendategia iruditu zitzaien onena, bat zetorren filosofian eta metodoetan, eta Gorlizkoak helioterapia gehitu nahi zion.**

La propuesta fue aceptada en 1909. Se envió entonces al equipo implicado en el proyecto a conocer las principales instalaciones sanitarias europeas. El sanatorio francés de Berck Plage les pareció el mejor, compartía su filosofía y métodos, a los que Gorliz añadiría la helioterapia.



**Berck Plage, Frantziako iparmendebaldeko kostaldean, erreferentzia izan zen tuberkulosi osteoartikularreko tratamenduengatik. 1937an Gerra Zibilean Gorlizko sendategitik ebakuatutako haurrik gehienak hartu zituen.**

Berck Plage, en la costa noroccidental francesa, sirvió como referencia por sus tratamientos para la tuberculosis osteoarticular. En 1937 acogió a parte de los niños evacuados del sanatorio de Gorliz durante la Guerra Civil.







**Eraikina egiteko zenbait sendategi hartu zituzten eredutzat: Chipiona (Cadiz), Oza (A Coruña) eta Pedrosa (Cantabria).**

Para la construcción del edificio se inspiraron en los sanatorios de Chipiona (Cádiz), Oza (La Coruña) y Pedrosa (Cantabria).

**Chipionako Sendategia (Cadiz).**
**Ozako Sendategia (A Coruña).**
**Pedrosako Sendategia (Cantabria).**

Sanatorio de Chipiona.
Sanatorio de Oza.
Sanatorio de Pedrosa.

## INAUGURAZIOA / LA INAUGURACIÓN


LA GACETA DEL NORTE

Las listas negras

La inauguración del Sanatorio

La tetralogía

La Walkyria

**Behin Bizkaiko udalek umeak ospitaleratzea ordaintzeko konpromisoa hartu ondoren, Korporazioak beharrezko dirua bildu zuen eta eraikitzeari ekin zioten. 1911ko apirilaren 29an jarri zuten lehen harria ospakizun jendetsu batean. Hurrengo urtean proiektuak sari bat jaso zuen Erromako Nazioarteko Higiene Erakusketan. Inaugurazio ofiziala 1919ko ekainaren 29an iritsi zen. Sendategia lau milioi pezetatik gora kosta zen.**

Una vez que la Corporación, con el compromiso de los ayuntamientos vizcaínos para sufragar la hospitalización de los niños, reunió el dinero suficiente, se inició la obra. El 29 de abril de 1911 se colocó la primera piedra en una ceremonia muy concurrida. Al año siguiente el proyecto recibió un premio en la Exposición Internacional de Higiene de Roma. La inauguración oficial llegó el 29 de junio de 1919. El sanatorio había costado más de cuatro millones de pesetas.

## ERREGE-ERREGINEN BISITAK / VISITAS REALES




1919ko abuztuaren 31n Alfonso XIII.ak bisita egin zuen sendategira, Areilza, Larrinaga eta Goiri doktoreak lagun zituela. Umeekin eta Patronatuko Batzordeko damekin solas egin zuen. Berak inauguratu zuen sinadura-liburua.

El 31 de agosto de 1919 el rey Alfonso XIII visitó el sanatorio acompañado por los doctores Areilza, Larrinaga y Goiri. Charló con los niños y con las damas de la Junta del Patronato. Él fue quien inauguró el Libro de Firmas.












**Victoria Eugenia erreginak 1920ko irailaren 4an bisita ofizial ospetsu bat egin zuen zentrora. Mediku eta Patronatuko Batzordeko damez gain, agintari zibilek eta militarrek egin zioten harrera. Bi urte geroago berriz itzuli zen, 1922ko abuztuaren 31n.**

La reina Victoria Eugenia realizó una solemne visita oficial al centro el 4 de septiembre de 1920. Además de los médicos y las damas del Patronato la recibieron las autoridades civiles y militares. Volvería dos años después, el 31 de agosto de 1922.

## PROMOTOREAK / LOS PROMOTORES


Enrique Areilza


Luis de Salazar


Felipe Llano

**Bizkaian haurren tuberkulosiak zuen eragin ikaragarria arintzeko sendategi bat eraikitzea Enrique Areilzaren ideia izan zen. Goi mailako bizkaitar honek, artean ere diseinatu eta zuzendu zituen ospitaleak, eta Zientzia Medikoen Bilboko Akademiaren sorreran parte hartu zuen. Aspaldiko medikukide eta lurraldeko diputatu zen Felipe Llanoren babesarekin, Luis Salazar ahaldun nagusiari eman zion asmoaren berri. XX. mendearen hasiera zen.**

La idea de edificar un sanatorio para tratar de paliar la enorme incidencia de la tuberculosis infantil en Bizkaia fue del doctor don Enrique Areilza, eminencia vizcaína que ya había diseñado y dirigido hospitales y participado en la fundación de la Academia de Ciencias Médicas de Bilbao. Con el apoyo de su antiguo compañero médico y diputado provincial Felipe Llano se la transmitieron al presidente de la Diputación de Bizkaia, Luis Salazar. Eran los primeros años del siglo XX.





**Memoria medikoa Luis Larrinaga Maurolagoitiaren ardurapean egon zen. Berau izan zen sendategiak izan zuen lehen zuzendaria. Arkitektura proiektua Mario Camiñaren esku egon zen. Euskal modernismoaren adierazgarririk nabarmenetariko hau 1902az geroztik Bizkaiko Aldundiko arkitekto plazaren jabe izan zen. Gorlizen irudikatu zuen Euskadin dagoen oihartzun wagnertarreko Vienako sezesionismoko eraikinik onena.**

Se encargó de la memoria médica el doctor Luis Larrinaga Maurolagoitia, el primer director que tuvo el Sanatorio Marino de Gorliz. El proyecto arquitectónico corrió a cargo de Mario Camiña, destacado exponente del modernismo vasco, que desde 1902 ostentaba su plaza de arquitecto de la Diputación de Bizkaia. En Gorliz plasmó el mejor edificio del secesionismo vienés de resonancias wagnerianas que existe en Euskadi.



**Luis Larrinaga, 1919ko urriaren 23a. Sinadura-liburuan jasotako Gorlizko Sendategiko lehen zuzendariaren izenpekoa.**

Luis Larrinaga, 23 de octubre de 1919. Rúbrica del primer Director del Sanatorio Marino de Gorliz recogida en el Libro de Firmas.

LOTURA INSTITUZIONALA
VÍNCULO INSTITUCIONAL












Bizkaiko Aldundia izan zen sendategiaren arduraduna sorreran eta bi organo eratu zituen gobernurako eta zentroaren administraziorako, Batzorde Iraunkorra eta Patronatuko Damen Batzordea. Hauek bizi-maila oneko emakume dirudunak ziren eta musu-truk biltzen zuten dirua sendategiko gastuei erantzun ahal izateko. Dirua zuzen administratzeaz ere arduratzen ziren. Eraikinak ateak ireki zituenean 80 ohe dama hauen ekarpenari esker erosi zituzten. Euren lehen presidentea Concepción Smith de Rocheld izan zen. Bi presidente-ordek, idazkariak, idazkari-ordeak eta beste 19 kidek osatzen zuten hasierako 24 kideko batzorde hura.

La Diputación de Bizkaia es la responsable del sanatorio en sus orígenes y articula dos órganos para el gobierno y la administración del centro, la Comisión Permanente y la Junta de Damas del Patronato. Estas eran señoras de posición acomodada y vocación altruista que recaudaban donativos para costear los gastos del sanatorio y vigilaban la correcta administración de los fondos. Cuando el edificio abrió sus puertas 80 camas procedían de lo aportado por estas damas. Su primera presidenta fue Concepción Smith de Rocheld. Dos vicepresidentas, secretaria, vicesecretaria y 19 vocales completaban un órgano integrado inicialmente por 24 señoras.



EL NOTICIERO BILBAINO

DIARIO IMPARCIAL

26 de Julio de 1920

**El Sanatorio Marino-Helioterápico de Gorliz.**

La Junta de Damas del Patronato del Sanatorio Marino de Gorliz está integrada por:

- Vicepresidentas primera y segunda: Doña Rosario Menchaca de Igartua y Doña María Palme, viuda de Arellano
- Secretaria: Srta. María de la Sota
- Vicesecretaria: Doña María Prado de Horn
- Vocales: Doña María Chávarri de Salazar, Doña ... de Chávarri , Doña Polonia Santiesteban de Eulate, Doña Magdalena Chávarri de Arteche, Srta. Sofía Arana, Doña Juana Chalbaud de Rotaeche, la señora Condesa de Rodas, Doña Teresa Igartua, viuda de Gaminde, Doña Concepción Zorrozúa de Echevarría, Doña Paz Uriarte de Uribe, Doña Carmen Ibarra de Chalbaud, Doña Victorina Larrinaga, viuda de Basave, Doña ... Mac Mahon, viuda de Ibarra, Doña ... Echevarría de Parreiro, Doña ... Goldaracena de Olano, Doña Paz Epalza de Jáuregui y Doña ... Abrisqueta de Galloqui.

Roger Juval-en artikulu baten laburpena, El Noticiero Bilbaino, 1920ko uztailaren 26a.

Extracto de un artículo de Roger de Juval, EL Noticiero Bilbaíno, 26 de julio de 1920.

Sendategi hau inauguratu eta hamar urte geroago Moises Huertak busto bat zizelkatu zuen, oraindik ere ikus daitekeena. Mungian jaiotako Laureano de Jado mehatze-ingeniari eta filantropoarena da, sendategiak sorreran izan zuen beste ongileetako batena, hain zuzen.

Diez años después de la inauguración de este sanatorio Moisés Huerta esculpió un busto que sigue encontrándose en el centro. Reconoce la aportación del ingeniero de minas y filántropo nacido en Mungia, Laureano de Jado, otro de los benefactores con los que contó el sanatorio en sus inicios.



Areilza doktorearen estatua Moises de Huerta eskultorearen lana da. Mediku berritzaile eta konprometitu bati omen egiten dio.

La estatua del doctor Areilza es obra del escultor Moisés de Huerta. Rinde homenaje a un médico innovador y comprometido.



## 1962. KUDEAKETA KOMITEA / 1962. EL COMITÉ DE GERENCIA

**Sorrera hartatik lau hamarkada geroago sendategiko kudeaketa aldatu egin zen. Pilar Careagaren ekimenez, Damen Batzordeko Presidentea berau, Kudeaketa Komitea sortu zen. Bertako kide ziren Damen Batzordeko 3 kide, Batzorde Iraunkorreko beste 3, sendategiko Zuzendaria, 2 mediku, Karitateko Ahizpen Nagusia, maistra zaharrena, kapilaua eta Administratzailea.**

Por primera vez en más de cuatro décadas desde sus inicios cambia la gestión del sanatorio. Por iniciativa de Pilar Careaga, Presidenta de la Junta de Damas, se crea el Comité de Gerencia. Estaba integrado por 3 vocales de la Junta de Damas, otros 3 de la Comisión Permanente, el Director del sanatorio, 2 médicos, la Superiora de las Hijas de la Caridad, la maestra más antigua, el capellán y el Administrador.

## 1985. OSAKIDETZAN INTEGRATU / 1985. INTEGRACIÓN EN OSAKIDETZA

**Enrique Ornilla zuzendari zela sinatu zen Gizarte Segurantzarekin akordioa, eta 1985ean, Lurralde Historikoen Legea aprobatu eta bi urtera, zentroaren jarduera Eusko Jaurlaritzaren eskuetara igaro zen. Hala, Gorliz Ospitaleak gaur egun Osakidetza barruan bideratzen badu ere bere jarduna, Bizkaiko Foru Aldundiak jarraitzen du eraikinaren eta lurzoruaren jabe izaten eta Osakidetza osasun zerbitzuak emateko gozamendun edo usufruktudun besterik ez da.**

Con Enrique Ornilla como director se firmó el Concierto con la Seguridad Social y en 1985, dos años después de aprobarse la Ley de Territorios Históricos, la actividad del centro se traspasó al Gobierno Vasco. Así, el Hospital Gorliz presta hoy su actividad sanitaria como parte de Osakidetza aunque la titularidad de edificio y terreno sigue perteneciendo a la Diputación Foral de Bizkaia, siendo Osakidetza usufructuaria para prestar servicios de salud.




**1994ko ekainaren 29an Iñaki Azkunak Gorliz Ospitalea bisitatu zuen, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailburu gisa, Fernando Astorqui, arloko Zuzendari Nagusiarekin eta Javier Vergara Osakidetzako Zuzendariarekin batera. Zentroak 75. urteurrena ospatu zuen Gloria Quesada Zuzendari Kudeatzaile zela.**

El 29 de junio de 1994 Iñaki Azkuna visitó el Hospital Gorliz en calidad de Consejero de Sanidad del Gobierno Vasco acompañado por Fernando Astorqui, Director General del área y Javier Vergara, Director de Osakidetza. El centro celebraba su 75 aniversario con Gloria Quesada como Directora Gerente.

**Gaur egun, Osakidetza barruko Gorliz Ospitaleak, jarduera ugari ditu: egonkortasun eta susperraldi prozesuetan dauden paziente kronikoak artatzea, artatze aringarria, Garuneko Kalteak errehabilitatzea, Traumatologia eta Orokorra. Baita artatze errehabilitatzailea anbulatorio eran Uribe Kosta eta Barru-alde osasun-eskualdeetan. Gorliz Ospitalearen kudeaketa gaur egun zuzendaritza lantaldearen eta erdi-mailako arduradunen esku dago, beti ere Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak gehitzen dituen lantresna garaikide eta aurreratuenen laguntzarekin.**

En la actualidad, el Hospital Gorliz, Osakidetza, es un hospital de atención a pacientes crónicos en procesos de estabilización y convalecencia, atención paliativa, rehabilitación de Daño Cerebral, Traumatología y General, así como atención rehabilitadora en ámbito ambulatorio en las comarcas sanitarias de Uribe Kosta e Interior.

Para su gestión el Hospital Gorliz cuenta hoy con un organigrama integrado por el equipo directivo y mandos intermedios, además de con las herramientas contemporáneas y punteras implementadas por Osakidetza, Departamento de Salud del Gobierno Vasco.







# PAZIENTEAK
# PACIENTES


1919


2019

Bizitzara heldu berri direnetatik amaitzeko zorian daudenetaraino, ehun urtean atentzio espezializatua aurkitu dute, egonleku atsegina, eta hurbil-hurbileko zaintza, itsasoari begira jarraitzen duen ospitale honetan.

Desde quienes están estrenando la vida hasta los que ya se despiden de ella han encontrado durante cien años atención especializada, un espacio amable y cuidados cercanos en este hospital que sigue mirando al mar.

| PAZIENTEAREN PROFILA / PERFIL DEL PACIENTE | | |
|---|---|---|
| | **1919** | **2019** |
| **Patologia** / Patología | **Tuberkulosi osteoartikularra**<br>Tuberculosis osteoarticular | **Prozesu kliniko eta kirurgikoak. Kalte zerebralak, prozesu traumatologikoak, baskularrak eta sistemikoak**<br>Procesos gernerales clínicos y quirúrgicos. Proceso de daño cerebral, traumatológicos, vasculares y sistémicos |
| **Jatorria** / Procedencia | **Bilbo** / Bilbao | Bizkaia |
| **Sartutakoak**<br>Nº atendidos ingreso | 109 | 1.926 |
| Adina / Edad | **9 urte** / 9 años | **80 urte** / 80 años |
| **Ospitalez kanpoko jardueretan artatuak**<br>Nº atendidos activid. extrahospitalaria | | 12.207 |
| **Adina** / Edad | | **59 urte** / 59 años |

## 1919. PAZIENTE UMEAK BIZKAIAN. HEZURRETAKO TUBERKULOSIA ETA ERRAKITISMOA

Sendategia ireki zutenean 1919ko udan, lehen gaixoak Bizkaiko 50 neskato-mutiko izan ziren, 4 eta 14 urte bitartekoak, familia pobreetakoak. Jatorri berdintsua izateaz gain, gaitzak ere antzekoak zituzten: errakitismoa, lokomozio-aparatuko lesioak, eta tuberkulosi artikularra. Urtebetetik gora egin behar izaten zuten sendategian, eta lehen urte haietan Bizkaian erroldatutakoak bakarrik hartzen zituzten. 1919an 109 paziente hartu zituzten.

## 1960. PAZIENTE UMEAK. POLIOMIELITISA, PARALISIA, ETA HAZKUNDE NAHASMENDUAK

60ko hamarkadan pazientearen profila oraindik umearena zen, baina gaitzak beste batzuk ziren. Tuberkulosia desagerrarazita, pazienteak umeak ziren, baina poliomielitisaren birusak orno-muinean kalteak eragindakoak, edo paralisia, eta hazkunde nahasmenduak zeuzkatenak. Lesio neurologikodunak hartzen zituzten, baina ez zentroan tratatu ezin ziren desgaitasun psikikodunak edo antisozialtzat jotzen ziren jarduerak zituztenak.

## 1985. LEHEN HAURTZAROA ETA PAZIENTE HELDUAK

Urteak joan urteak etorri, gaitz neurologikodun pazienteak gehituz joan ziren; 1975ean, esaterako, asistentzia emandako 854 pazienteetatik %46 izan ziren. Hezur eta artikulazioetako gaitzak edo hazkunde nahasmenduak zeuzkaten umeak heren bat ziren. 1979an, ehun bat ohe hutsik izanik, adin mugak kendu egin zituzten. Helduak atenditzen hasi ziren; eta, Gizarte Segurantzarekin itunak sinatu ondoren, ume txikiak ere bai. 1984an bizkarrezurreko patologiak (zifosia eta eskoliosia) ziren gehienak eta ondoren oinetakoak. Osakidetzan sartzeak aldaketak eragin zituen atentzio-ereduan eta pazienteen profilean. 1985az geroztik, Gorliz Ospitalea da.

## 2019. PAZIENTE HELDU KRONIKOAK ETA ERREHABILITAZIORAKOAK

Gaur egun Gorlizko Ospitalera doazen pazienteak, gehien-gehienak, helduak dira eta Bizkaikoak, 80 urtekoak batez beste. Egonkortze prozesuan dauden gaixo kronikoak, susperraldikoak, errehabilitazio orokorra edo traumatologikoa behar dutenak, kalte zerebraldunak eta zainketa aringarriak behar dituztenak. Badira batez beste ia 60 urte dituztenak ere atentzio errehabilitatzaile anbulatorioa hartzen dutenak.

## 1919. PACIENTES INFANTILES DE BIZKAIA. TUBERCULOSIS ÓSEA Y RAQUITISMO

Cuando el sanatorio abrió sus puertas en el verano de 1919 los primeros pacientes fueron 50 niños y niñas vizcaínos de 4 a 14 años que procedían de familias humildes. Además de su origen tenían en común diversas afecciones: raquitismo, lesiones del aparato locomotor y tuberculosis osteoarticular. Las estancias en el sanatorio superaban el año de hospitalización y en aquellos inicios sólo se admitía a niños empadronados en Bizkaia. A lo largo de 1919 ingresaron 109 pacientes.

## 1960. PACIENTES INFANTILES. POLIOMIELITIS, PARÁLISIS Y ALTERACIONES DEL CRECIMIENTO

En los años 60 el perfil del paciente seguía siendo infantil pero sus dolencias eran otras. Erradicada la tuberculosis, los pacientes pasaron a ser niños y niñas a los que el virus de la poliomelitis había generado problemas en la médula espinal y parálisis, y otros que sufrían alteraciones en el proceso de crecimiento. Se aceptaban casos de lesiones neurológicas pero no discapacidades psíquicas que excedieran la capacidad del centro o conductas consideradas antisociales.

## 1985. PRIMERA INFANCIA Y PACIENTES ADULTOS

Con el paso de los años los pacientes con enfermedades neurológicas aumentaron hasta suponer el 46% de los 854 asistidos en 1975. Los niños con procesos osteoarticulares o enfermedades del crecimiento sumaban un tercio. En 1979, ante el centenar de camas libres existente, el centro elimina los topes de edad. Se comienza a atender a adultos y, a raíz de los conciertos con la Seguridad Social, a la primera infancia. En 1984 las patologías de la columna vertebral (cifosis y escoliosis) eran las mayoritarias, seguidas por las que afectaban a los pies. La integración en Osakidetza supuso transformaciones en el modelo asistencial y en el perfil del paciente del, a partir de 1985, Hospital Gorliz.

## 2019. PACIENTES ADULTOS CRÓNICOS Y CON REHABILITACIÓN

Los pacientes que acuden hoy al Hospital Gorliz son en su inmensa mayoría adultos procedentes de Bizkaia con una edad media de 80 años, pacientes crónicos en proceso de estabilización y convalecencia, con necesidad de rehabilitación general, de traumatología y daño cerebral y de atención paliativa. También los hay, con una media de casi 60 años, los que reciben atención rehabilitadora ambulatoria.

## HEZURRETAKO TUBERKULOSIA ETA ERRAKITISMOA / TUBERCULOSIS ÓSEA Y RAQUITISMO

**Gorlizko Itsas Sendategiko 8. pazientearen historia klinikoa. 1919ko ekainaren 28an sartu zen, 8 urteko zela; diagnostikoa: Pott-en gaitza. Tratamendua: 3 orduko eguzki-bainuak eta "ardo iodo/tanikoa eta bakailao-gibel olioa" hartzea. 1920ko otsailaren 29an eman zioten alta.**

Historia clínica del octavo paciente del Sanatorio Marino de Gorliz. Ingresó el 28 de junio de 1919 a los 8 años de edad con un diagnóstico de "Mal de Pott dorsal". Su tratamiento consistió en baños de sol de 3 tres horas y la administración de "vino yodo-tánico y aceite de hígado de bacalao". Fue dado de alta el 29 de febrero de 1920.


SANATORIO MARINO DE GORLIZ (Vizcaya)

Sala núm. | Cama núm.

[redacted]

[redacted] [redacted]

OBSERVACIONES












BIOTERAPIA

**Gaixoa ospitaletik irten eta bi urte t'erdi geroago, aitak eskutitz batean bere semeak izan zuen zaintza eskertu zion sendategiko zuzendariari. Semea hil berria zen.**

Dos años y medio después de que el paciente saliera del hospital su padre agradeció en una carta al director del sanatorio los cuidados a su hijo. El niño acababa de fallecer.

**20ko hamarkadan, eskoliosia eta esku, beso, zango eta oinetako deformazioak zeuzkaten ume eta gaztetxoak izan ziren han zaintza eta tratamendua hartu eta ebakuntza kirurgikoak egin zizkieten lehenak, bertako mediku, Karitateko Ahizpa eta laguntzaileen aldetik.**

En los años 20, niños y adolescentes con escoliosis y deformaciones de manos, brazos, piernas y pies fueron los primeros destinatarios de los cuidados, tratamientos e intervenciones quirúrgicas de médicos, Hermanas de la Caridad y auxiliares.



## POLIOMIELITISA, PARALISIA, ETA HAZKUNDE NAHASMENDUAK / POLIOMIELITIS, PARÁLISIS Y ALTERACIONES DEL CRECIMIENTO

**Umeek jolasteko astia izaten zuten pinudian, laguntzaileek zainduta; eta aire librean irakurtzeko ere bai. Ustea zen eguzkiaren eta itsasoko aire ioidunaren eraginpean efektu oxidatzailea gertatuko zela, infekzio-prozesu arinak sendatzeko.**

Los pequeños disfrutaban de tiempo de expansión en el pinar bajo la vigilancia de auxiliares, y lectura al aire libre. Se consideraba que su exposición combinada al aire iónico del mar y al sol tenía un efecto oxidante y curaba los procesos infecciosos superficiales.





## 1985. LEHEN HAURTZAROA ETA PAZIENTE HELDUAK / 1985. PRIMERA INFANCIA Y PACIENTES ADULTOS

**Sehasken aretoa, urte 1 eta 3 bitarteko umeekin, eta emakume heldua gurpil-aulkian. Bi eredu, 80ko hamarkadan hartzen ziren gaixoen adin-tarte berriaren bi muturrak erakusteko.**

La sala de cunas con niños de 1 a 3 años y la señora mayor en silla de ruedas ejemplifican los extremos de la nueva horquilla de edad en la admisión de pacientes en los años 80.





## 2019. BIZKAIA OSOKO PAZIENTE HELDUAK / 2019. PACIENTES ADULTOS CRÓNICOS Y CON REHABILITACIÓN











**Gorliz Ospitalean, gaur egun, hainbat patologia tratatzen dituzte, bertan ospitalizatuta edo modu anbulatorioan. Tratamendu batzuetarako Bizkaia osotik heltzen dira, ospitale hau erreferentziako zentrotzat baitaukate; beste batzuetarako, Uribe Kosta eta Barrualdea osasun-eskualdeetatik heltzen dira. Nagusiak hartzen dituzte, gehienbat, baina patologia neurologikodun umeak ere tratatzen dituzte.**

El Hospital Gorliz trata hoy a pacientes de múltiples patologías tanto con hospitalización como de forma ambulatoria. Para algunos procesos vienen de toda Bizkaia por la cualidad de centro referente en daño cerebral que tiene este hospital y para otros, de las comarcas sanitarias de Uribe Kosta e Interior. Mayoritariamente se atiende a adultos, aunque también a niños con patologías neurológicas.







# TRATAMENDUAK
# TRATAMIENTOS

Eguzkiak, itsasoak eta elikadura onak izan ditzakeen onuretan konfiantza osoa izatetik azken belaunaldiko errehabilitazio eta zainketa kroniko eta aringarrietako tratamenduetara mende oso bat igaro da. Dena aldatu da, baina asmoa berbera da. Gaixoari unean-unean konponbiderik onena ematea.

Desde la confianza plena en los efectos beneficiosos del sol, el mar y una buena alimentación, hasta los tratamientos de última generación en rehabilitación y cuidados crónicos y paliativos, ha pasado un siglo. Todo ha cambiado, pero la intención es la misma. Ofrecer siempre al paciente la mejor solución en cada momento.






### TUBERKULOSIA, "IZURRI ZURIA"

**XIX. mendean tuberkulosia epidemia bilakatu zen. Industrializazioa zela eta hiriak masifikatzeak eta higienerik ezak gaixotasunaren eragina areagotu egin zuten. Bilbok 1878 eta 1888 bitartean 80.000 biztanle zituen eta tuberkulosiak jotako 6.000 kasu inguru azaldu ziren. Europako umeen heriotza tasarik handienetakoa izan zuen. Egoera honen aurrean bi doktrina indartu ziren XX.mendearen hasieran, prebentzioa eta higienismoa, alegia. Hirietan osasun-egoera ona sortu beharrari garrantzia eman behar zitzaion eta horretarako txorrotako ura, estoldak eta kale argiteria jarri ziren.**

### LA TUBERCULOSIS, LA "PESTE BLANCA"

En el siglo XIX la tuberculosis adquirió carácter de epidemia. La masificación de las ciudades por la industrialización y la falta de higiene multiplicaron los efectos de la enfermedad. En Bilbao, con unos 80.000 habitantes entre 1878 y 1888, se declararon 6.000 casos de tuberculosis, con una de las tasas de defunción infantil más altas de Europa. Ante esa realidad la prevención y el higienismo fueron doctrinas que alcanzaron su mayor auge a principios del siglo XX. Se incidía en la importancia de crear condiciones de salubridad en la ciudad mediante la instalación de agua corriente, cloacas y una buena iluminación en las calles.

## 1919. HELIOTERAPIA ETA HIGIENISMOA

**Helioterapia edo eguzkia hartuz sendatzea, Europako sendategietan aplikatzen hasi ziren medikuntza naturalaren ardatzetako bat izan zen; tartean zegoen Gorlizkoa ere. Eguzki-bainuak horizontalki hartzen ziren tuberkulosiak erasandako gorputzeko atal guztiek, lepoak, gongoilek, besapeek... erradiazio kopuru bera har zezaten. Gainera eguzkiak eta itsas aireak ozono eta oxigeno gehiago ematen dizkigute, jateko gogoa areagotu, baso-sistema indartu eta umeen hazkuntza hobetzen dute. Era honetan gaixoen bizilekuetako eragin kaltegarriak arindu egiten ziren, batez ere sendategiaren lehen urteetan, umeak jendez betetako etxe xumeetatik etortzen zirenean. XX. mendean sortutako praktika higienistak ere erabili ziren osasungarritasunik ezari eta malnutrizioari aurre egiteko. Honetarako, Gorlizko gela zabalak aireztatu eta zorua urez garbitzen zen egunero, inoiz ez erratzez, eta dieta sanoa eta ugaria eskaintzen zen bertako baratze eta etxaldeko produktuekin. Baziren tratamendua osatzeko beste teknika batzuk ere, hala nola, izpi ultramoreen aplikazioa eta ahuldutako muskulua indartzeko aire librean egiten zen gimnasia suediar errehabilitatzailea.**

## GERRAOSTEA. KIRURGIA ORTOPEDIKOA

**Gerra Zibilaren ostean sendategira normaltasuna iritsi zenean, zentroa kirurgia ortopedikoko ebakuntzetan nabarmendu zen. 1945ean estreptomizinaren aurkikuntzak eta geroago PAS eta hidrazidek tuberkulosiaren (TBC) amaiera ekarri zuten. Gizarte Segurantzaren estaldura handitzeak eta gizarte eta ekonomia mailako hobekuntzek ere eragina izan zuten. Hezurretako tuberkulosia bideratutakoan beste patologia osteoartikular batzuk tratatzera jo zuten. Zentroak poliomielitisak umeengan utzitako ondorioak, haurren paralisia, hazkuntzaren alterazioak, eta neurologia eritasunak tratatzeari ekin zion progresiboki.**

## 1969. KIRURGIA ORTOPEDIKO ETA ERREHABILITAZIO INSTITUTUA

**1957an hasi ziren garuneko paralisidun pazienteak martxa-gelan tratamendua hartzen eta errehabilitatzen. 1961ean Makanoterapia hasi zen eta 1964an Okupazio-Terapia eta Logopedia. 1968an Talasoterapia Pabilloiak ireki zituen ateak eta hurrengo urtean sendategia Kirurgia Ortopediko eta Errehabilitazio Institutu bihurtu zen.**

## 2019. KRONIKOEN OSPITALEA

**Gaur egun Gorliz Ospitaleak egoera egonkorrean eta susperraldian dauden prozesu kronikoak artatzen ditu, baita garuneko kalteetan egoera aringarrian eta tratamendu errehabilitatzailean dauden prozesuak, traumatologia prozesu sistemikoak eta paziente anputatuak ere. Bestalde, tratamendu errehabilitatzaileak aplikatzen ditu anbulatorio eran helduen era askotako patologietan, eta umeen prozesu neurologikoak ere artatzen ditu. Horretarako, ospitaleak gelak, teknologia eta profesionalak ere egokitu beharra izan du. Egiten diren terapiak askotarikoak dira, bestelako formulak ere barne direlarik, hala nola, eguneko ospitaleak, eskola programak eta tailer bereziak. Hau guztia bideratzeko ezinbestekoak dira Gorliz Ospitaleak etengabe lantzen dituen berrikuntza eta ikerkuntza proiektuak.**

## 1919. HELIOTERAPIA E HIGIENISMO

La helioterapia, la sanación por la exposición al sol, fue uno de los preceptos de la medicina natural que se empezaron a aplicar en los sanatorios europeos, entre ellos el de Gorliz. Los baños de sol se hacían en horizontal para que todas las partes afectadas por la tuberculosis: cuello, ganglios, axilas... recibieran la misma radiación. Además, el sol y el aire marino aportan más ozono y oxígeno, despiertan el apetito, tonifican el sistema vascular y mejoran el crecimiento de los niños. Se contrarrestan así los efectos nocivos de sus lugares de residencia, sobre todo en la primera época del sanatorio en que los niños procedían de hogares muy modestos y hacinados Se incorporaron también las prácticas higienistas surgidas en el s. XX para hacer frente a la insalubridad y malnutrición de las ciudades. En Gorliz esto se traducía en ventilar y fregar a diario las amplias habitaciones, nunca barrerlas, y ofrecer una dieta sana y abundante con huerta y granja propias. El tratamiento se completaba con técnicas como la aplicación de rayos ultravioleta y la práctica al aire libre de gimnasia sueca rehabilitadora para recuperar el músculo debilitado.

## POSGUERRA. CIRUGÍA ORTOPÉDICA

Cuando se recuperó la normalidad en el Sanatorio tras la Guerra Civil, el centro destacaba por sus intervenciones quirúrgicas de cirugía ortopédica. En 1945 el descubrimiento de la estreptomicina, y posteriormente PAS e hidrazidas, supuso el fin de la tuberculosis (TBC). También influyeron en ello la mayor cobertura de la Seguridad Social y las mejoras socioeconómicas. Al reconducirse la tuberculosis ósea se pasó a tratar otras patologías osteoarticulares. El centro se reorientó progresivamente hacia el tratamiento de niños con secuelas de poliomielitis, parálisis infantil, alteraciones del crecimiento y enfermedades neurológicas.

## 1969. INSTITUTO DE CIRUGÍA ORTOPÉDICA Y REHABILITACIÓN

Pacientes con parálisis cerebral recibían tratamiento en la sala de marchas y la de recuperación ya en 1957. En 1961 se incorporó la Mecanoterapia y en 1964, los servicios de Terapia Ocupacional y Logopedia. En 1968 el Pabellón de Talasoterapia abrió sus puertas y un año después el sanatorio pasó a convertirse en Instituto de Cirugía Ortopédica y Rehabilitación.

## 2019. HOSPITAL DE CRÓNICOS

En la actualidad el Hospital Gorliz atiende procesos crónicos en estabilización y convalecencia, procesos en situación de paliatividad y tratamiento rehabilitador en daño cerebral, procesos de traumatología sistémicos y pacientes amputados. Aplica también tratamientos de rehabilitación en forma ambulatoria de diferentes y amplias patologías en adultos, además de atender a niños con procesos neurológicos. Para ello, el hospital ha ido adaptando sus dependencias, tecnología y a sus profesionales. Las terapias que se realizan son muy diversas e incluyen fórmulas como los hospitales de día y programas de escuelas y talleres específicos. Todo esto es posible gracias a los proyectos de innovación e investigación en los que trabaja constantemente el Hospital Gorliz.

**HERIOTZAREN ZERGATIAK GORLIZ SENDATEGIA, 1919 – 1937** / CAUSAS DE MORTALIDAD SANATORIO DE GORLIZ, 1919 – 1937

• **Meningitisa** / Meningitis **40** • **Kakexia tuberkulosoa** / Caquexia tuberculosa **37** • **Peritonitis tuberkulosoa** / Peritonitis tuberculosa **4** • **Bronkopneumonia** / Bronconeumonía **2** • **Septizemia** / Septicemia **7** • **Giltzurrun-amiloidosia** / Amiloidosis renal **11** • **Mediastinitis** / Mediastinitis **1** • **Bihotz-kolapsoa** / Colapso cardíaco **5** • **Linfedema** / Linfedema **1** • **Eklanpsia** / Eclampsia **1** • **Glotiseko edema** / Edema de glotis **1** • **Zehaztu gabeak** / No consta **4**

## 1919. HELIOTERAPIA ETA HIGIENISMOA / 1919. HELIOTERAPIA E HIGIENISMO




**Teoria higienisteei jarraituz, ondo aireztatutako espazio zabalak diseinatu zituzten. Haurrak giro-tenperaturara ohitzea komeni zen, euren defentsak indartzeko. Oso gutxitan erabiltzen zen berokuntza artifiziala.**

Siguiendo las teorías higienistas se diseñaron espacios amplios bien ventilados. Se prefería que los niños se acostumbraran a la temperatura ambiente, para reforzar sus defensas. Era muy poco frecuente el uso de la calefacción.



**Eguzki bainuen iraupena mailakakoa zen, egunero 4 ordu hartzera heldu arte. Eraginik handiena 30 eta 40 gradu bitartean lortzen zela uste zen.**

La duración de los baños de sol era progresiva, hasta alcanzar una media de 4 horas diarias. Se consideraba que el mayor efecto se conseguía con temperaturas de 30º a 40º.



**Izpi ultramoreen sesioak tratamendu helioterapikoaren lagungarri ziren.**

Las sesiones de rayos ultravioleta complementaban el tratamiento helioterápico.

## GERRAOSTEA. KIRURGIA ORTOPEDIKOA / POSGUERRA. CIRUGÍA ORTOPÉDICA













**Tuberkulosi osteoartikularraren forma kronikoak umeen artean oso ohikoak ziren. Bizkarraldea, zangoak, eskuak eta oinak deformatzen zizkieten eta baliaezintasuna ez ezik heriotza ere eragiten zieten.**

Las formas crónicas de la tuberculosis osteo-articular eran muy frecuentes entre los niños. Les deformaban la espalda, las piernas, las manos y los pies llegando a provocarles invalidez e incluso, la muerte.

**Hezurren eta bizkarrezurraren deformazioak zuzentzeko askotariko ortopediak, ohe bereziak, sostengatzekoak eta zuzentzekoak erabiltzen ziren.**

Para corregir las deformaciones de huesos y columna vertebral se empleaban diversas ortopedias, camas de reclinación, sustentadores y correctores.

## 1969. KIRURGIA ORTOPEDIKO ETA ERREHABILITAZIO INSTITUTUA / 1969. INSTITUTO DE CIRUGÍA ORTOPÉDICA Y REHABILITACIÓN



**Tratamendu berriek gaitasun tekniko berezia eskatzen zuten zapalkera eta ibiltzeko era neurtzeko eta zuzentzeko, baita bizkarrezurra, besoak, zangoak eta eskuak trebatzeko ere. Masajeak eta igeritokiko bainuak ere osagarri funtsezkoak ziren. Igeritokiek argi naturala hartzen zuten, igeri egitea ahalbidetzen zuten eta urpeko masaje sistema ere bazuten.**

Los nuevos tratamientos requirieron dotación técnica específica para medir y corregir la pisada y el modo de andar, así como para ejercitar la columna, brazos, piernas y las manos. Los masajes y baños en piscina fueron también un complemento fundamental. Las piscinas recibían luz natural, permitían la natación y contaban con sistema de masaje subacuático.







## 2019. KRONIKOEN OSPITALEA / 2019. HOSPITAL DE CRÓNICOS









**Gaur egun Gorliz Ospitaleak profesionalik espezializatuenak, teknologiarik berriena eta era askotako prozesuak artatzeko eta terapia ezberdinak eta paziente mota bakoitzari egokitutako tratamenduak aplikatzeko gelak eta aretoak ditu.**

Hoy el Hospital Gorliz dispone de los profesionales más especializados, la última tecnología y unas dependencias adaptadas para atender distintos procesos, aplicar terapias y tratamientos personalizados para cada tipo de paciente.









1919

## BERRIZTATZEKO GAITASUNA

Mende bat igaro da lehen Itsas Sendategitik gaurko Gorliz Ospitalera. Orduan, dozena t'erdi Karitateko Ahizpa, abitu zuri-zuriekin, eta hogei bat zerbitzari, makinista eta telefonista barne; gaur 334 langile dira etxe honetan lan egiten dutenak, bi heren osasun-langileak. Profesional hauek euren lan-bizitza osoa, edo zati bat behintzat, beharrean daudenei eskaini diote, eta une bakoitzean paziente bakoitzaren beharretara moldatzen jakin dute. Eurak dira ospitale honen arima.

## LA CAPACIDAD DE REINVENTARSE

Un siglo separa al primer Sanatorio Marino del actual Hospital Gorliz, a aquella docena y media de Hermanas de la Caridad de hábito inmaculado, a la veintena de sirvientas, maquinista y telefonista, de las 339 personas que desempeñan hoy su trabajo en este edificio, dos tercios de ellas de perfil sanitario. Profesionales que han dedicado parte o toda su vida laboral a quienes les han necesitado y que han sabido adaptarse a las necesidades de cada paciente y de cada momento. Ellas y ellos son el alma de este hospital.



2019

## KARITATEKO AHIZPAK / HERMANAS DE LA CARIDAD



Sendategiko lehen zuzendariak, Luis Larrinaga doktoreak, erlijio-ordena hau aukeratu zuen gaixoak zaintzen zeukaten eskarmentuagatik, eta gizarteko behartsuenenganako arduragatik. Sor Juana Gabilondo ahizpa nagusiaren gidaritzapean, txeraz zaindu zituzten umeak hainbat hamarkadatan; ardura hartu zuten umeak elikatzeko, sendaketak eta terapiak egiteko, eta ebakuntza-gelako, laborategiko eta farmaziako eginbeharrak betetzeko.

El primer director del sanatorio, el doctor Luis Larrinaga, eligió a esta orden religiosa por su gran experiencia en el cuidado al enfermo y su dedicación a las clases más desfavorecidas. Bajo las órdenes de la superiora, sor Juana Gabilondo, atendieron a los niños con cariño durante décadas, se encargaron de su alimentación, curas y terapias y cumplieron sus funciones en quirófano, laboratorio y farmacia.

## 1919. FAMILIA TXIKI BAT

1919ko udan, Gorlizko Itsas Sendategiko taldea osatzen zuten guztiek izenez elkar ezagutzen zuten. Erraza zen, ez ziren 40tik askoz gorago. Zuzendariak, Luis Larrinagak, Luis Goiri zuzendariordeak lagunduta, 18 Karitateko Ahizpa zuzentzen zituen, 20 neskame, makinista bat eta telefonista bat; ia denak emakumeak. Langileak Plentzia, Gorliz eta inguruetakoak ziren, ezinbestekoa aldi hartan hemen lan egiteko. Bizkaiko Aldundiak bi etxetxo eraiki zituen ospitalearen ondoan, zuzendari medikuaren eta administratzailearen bizileku izateko.

## 30EKO HAMARKADA. MEDIKUAK ETA IRAKASLEAK

Ireki eta hamar urte geroago, beste hiru mediku sartu ziren sendategiko plantillan: Tomas Corral, analisi klinikoen laborategiko buru, eta haren laguntzaileak, Enrique Ornilla Benito eta Rufino Legorburu Bilbao. Luis Larrinagak zuzendari izaten jarraitu zuen gerra zibila piztu eta dena aldatu zen arte. 1937an, Frantziako zentro batera ebakuatutako lehenengo umeak eta ahizpak itzuli zirenean, medikuak baztertu egin zituzten arazo ideologikoengatik. Enrique Ornilla bakarrik geratu zen, eta zuzendaritza hartu zuen; lehenengo behin-behineko zela, eta gero izendapen ofizialarekin, 1942an. Karguan jarraitu zuen 1974an hil zen arte. Zentroak irakasleak hartzea ere bultzatu zuen. Paziente umeek luzaro egon behar izaten zutenez, 1932an 5 maistra kontratatu zituzten haiei eskolak emateko.

## 60KO HAMARKADA. HEZIKETARAKO ORDUA

Sendategiaren azken etapa Aldundiaren ongintza-erakunde zenez, 1969 eta 1985 bitartekoa izan zen; zentroa, orduan, Kirurgia Ortopediko eta Errehabilitazio Institutua izan zen. Zerbitzu berri horiek eskaintzeak osasun-pertsonala gehitzea ekarri zuen, eta haien prestakuntza hobetzea. Zentroan ez ziren asko OLT tituludun profesionalak. Sendategiak berak, Bizkaiko Aldundiarekin eta Lan Ministerioarekin elkarlanean, zaintzaileentzako ikastaroak antolatu zituen klinikako laguntzaile lanak egin ahal izateko.

### 1969AN KONTRATATUTAKO PERTSONALA

**22** mediku, **23** erizain (haietako 21 Karitateko Ahizpak), **67** klinika laguntzaile, **7** administrari, **107** zerbitzu eta mantenimenduko langile, **16** maistra eta **1** kapilau.

## 90EKO HAMARKADA. TALDE ESPEZIALIZATUAGOA

Sendategiak mende erdi bete zuenetik 1969an, 75. urteurrena ospatu arte 1994an, errehabilitaziorako erreferentziako zentro bilakatuta Euskadin, beste 25 pertsona sartu ziren lantaldean. Une hartan Dolores Churruca 1942tik Damen Batzordeko kide zenak, haien profesionaltasun eta ardura bikaina azpimarratu zituen. Izan ere, Gorlizek izen handia hartua zeukan nazioartean. Osakidetzan sartzean desagertu egin ziren profil profesional batzuk eta gehitu barne-medikuntzako medikuak, bikoiztu errehabilitaziokoak, eta plantillako osasun-profesionalak, EUDak, fisioterapeutak... lehen halako zortzi izan ziren.

## 2019. PROFIL PROFESIONALAK BEHAR BAKOITZERAKO

### GORLIZKO OSPITALEKO PLANTILLA

• Zuzendariak eta Erdi-mailako Kargudunak • Mediku Espezialistak Barne-medikuntzan, Errehabilitazio Fisikoan, Neurologian eta Psikiatrian • Erizainak • Farmazialaria • Psikologo Klinikoa • Logopeda • Okupazio-terapeuta • Fisioterapeuta • Gizarte-langilea • Erizaintzako Laguntzaileak • Izpietako Teknikaria • Zelariak • Garbitzaileak • Sukaldariak eta Sukaldeko Laguntzaileak • Mantenimendua • Administrari Laguntzaileak • Teknikariak (Pertsonal-unitateak, Kudeaketa Ekonomikoa, Juridikoa, Kalitatea) • Informatikariak • Sukaldariak • Zerbitzu itunduak: Nutrizionista, Zaintzaileak eta Garbitegia.

Guztira: 339 **Azken datu eskuragarriak, 2018.*

## 1919. UNA PEQUEÑA FAMILIA

En el verano de 1919 todas las personas que componían el equipo del Sanatorio Marino de Gorliz podían conocerse por su nombre. Era fácil, apenas superaban las 40. El director Luis Larrinaga, con el apoyo del subdirector Luis Goiri, dirigía a 18 Hermanas de la Caridad, 20 sirvientas, un maquinista y una telefonista, un personal esencialmente femenino. Las empleadas eran vecinas de Gorliz, Plentzia y alrededores, requisito entonces imprescindible para trabajar aquí. La Diputación de Bizkaia construyó dos casitas cerca del hospital para que sirvieran de residencia al director médico y al administrador.

## AÑOS 30. EL REFUERZO MÉDICO Y DOCENTE

Una década después de su apertura, se incorporaron tres doctores más a la plantilla del sanatorio, Tomás Corral, como jefe del laboratorio de análisis clínicos, y los ayudantes Enrique Ornilla Benito y Rufino Legorburu Bilbao. Luis Larrinaga siguió ejerciendo como director hasta que la Guerra Civil llegó y lo cambió todo. En 1937, tras el primer retorno al sanatorio de los niños y las Hermanas que habían sido evacuados a un centro francés, los médicos fueron depurados por motivos ideológicos, salvo Enrique Ornilla que asumió la dirección, primero como interino y en 1942 con nombramiento oficial. Se mantuvo en el cargo hasta su muerte en 1974. El centro apostó también por incrementar la presencia de docentes. Ante las largas estancias de los pacientes infantiles contrató a 5 maestras en 1932 para atender su escolarización.

## AÑOS 60. LA HORA DE LA FORMACIÓN

La última etapa del sanatorio como entidad de beneficencia de la Diputación fue la que transcurrió entre 1969 y 1985, cuando el centro fue un Instituto de Cirugía Ortopédica y Rehabilitación. Ofrecer esos nuevos servicios se tradujo en un aumento del personal sanitario y de sus capacidades. En el centro escaseaban los profesionales con el título de ATS. El propio sanatorio, en colaboración con la Diputación de Bizkaia y el Ministerio de Trabajo, organizó cursillos dirigidos a cuidadoras para que pudieran ejercer de auxiliares de clínica.

### PERSONAL CONTRATADO en 1969

22 médicos, 23 enfermeras (21 de ellas, Hermanas de la Caridad) , 67 auxiliares clínicas, 7 administrativos, 107 empleados de servicios y mantenimiento, 16 maestras y 1 capellán.

## AÑOS 90. UN EQUIPO MÁS ESPECIALIZADO

Desde que el Sanatorio cumplió medio siglo en 1969 hasta que celebró su 75 aniversario en 1994, convertido ya en centro de referencia para la rehabilitación en Euskadi, el equipo humano había seguido aumentando en 25 personas. En aquel momento Dolores Churruca, miembro de la Junta de Damas desde 1942, destacó su profesionalidad y entrega excepcionales. Por algo Gorliz había conseguido forjarse un prestigio internacional. A partir de su integración en Osakidetza desaparecieron algunos perfiles profesionales y aumentaron los médicos internistas, se duplicaron los rehabilitadores y la plantilla de profesionales de enfermería, DUE, fisioterapeutas... se multiplicó por ocho.

## 2019. PERFILES PROFESIONALES ACTUALES

### PLANTILLA HOSPITAL GORLIZ

• Directivos y Mandos Intermedios • Médicos Especialistas en Medicina Interna, Rehabilitación Física, Neurología y Psiquiatría • Enfermeras • Farmacéutico • Psicólogo Clínico • Logopeda • Terapeuta Ocupacional • Fisioterapeuta • Trabajador Social • Auxiliares de Enfermería • Técnico de Rayos • Celadores • Limpiadores • Cocineros y Ayudantes de cocina • Mantenimiento • Auxiliares Administrativos • Técnicos (en Unidades de Personal, Gestión Económica, Jurídico, Calidad) • Informáticos • Cocineros • Servicios concertados: Nutricionista, Vigilantes y Lavandería.

**Total: 339** ** Últimos datos disponibles, 2018.*

## 1919. FAMILIA TXIKI BAT / 1919. UNA PEQUEÑA FAMILIA




**Jostun bat eta bi neskame izan ziren, 1919ko abuztutik urrira bitartean, sendategiko pertsonalaren erregistroan izena idatzi zuten lehen langileak. Ikusten denez, lehenengo urteetan sukaldeko, garbitegiko eta pabilioietako neskameak ziren langile gehienak.**

Una costurera y dos sirvientas aparecen como las primeras empleadas inscritas en el Registro de Personal del sanatorio entre agosto y octubre de 1919. Como se puede apreciar, durante los primeros años las sirvientas destinadas a cocina, lavadero y pabellones constituían buena parte de la plantilla.



**Zentroa sortu zenean, Damen Batzordeak eta Batzorde Iraunkorrak baztertu egin zuten gaixoen arretarako gizonezko langileak hartzeko ideia. Larrinaga doktoreak zeregin hori Karitateko Ahizpei ematea erabaki zuen; gaixoak zainduko zituzten, eta beste eginbehar guztiak bete ere bai ebakuntza-gelan, laborategian eta farmazian.**

En los orígenes del centro la Junta de Damas y la Comisión Permanente rechazaron la idea de que hubiera personal masculino en la atención al paciente. El doctor Larrinaga decidió encargar a las Hermanas de la Caridad esta tarea que incluía no sólo cuidar al enfermo, sino desempeñar todas las funciones necesarias en quirófano, laboratorio y farmacia.

## 30EKO HAMARKADA. MEDIKUAK ETA IRAKASLEAK / AÑOS 30. REFUERZO MÉDICO Y DOCENTE



**30eko hamarkadatik aurrera haziz joan zen medikuen plantilla gaixoen beharrak betetzeko, hauek gero eta gehiago baitziren. Sorreran mediku bakar bat bazegoen, Larrinaga doktorea, gero lau zeuden.**

A partir de los años 30 se fue incrementando la plantilla médica para cubrir las necesidades de un número creciente de pacientes. De un médico inicial, el doctor Larrinaga, se pasó a cuatro.

## 60KO HAMARKADA. HEZIKETARAKO ORDUA / AÑOS 60. L A HORA DE LA FORMACIÓN



**Damen Patronatuko Batzordearen 1964ko arautegi honek osasun-laguntzaileen eguneroko zereginak eta ardurak zehazten ditu. Errehabilitazioa, okupazio-terapia, psikopedagogia, eta "bizitza praktikorako ikasgaiak" izenekoa: umeei jaten, garbitzen, janzten, autonomoak izaten irakastea. Eta, eguneko azken orduetan, beharrezko zuten pazienteei ferulak jarri eta oheko gorputz-jarrera zuzentzea. Hori guztia ahizpa zerbitzuburuak gainbegiratuta.**

En este reglamento de 1964 la Junta del Patronato de Damas establece las tareas y responsabilidades diarias de las auxiliares sanitarias. Rehabilitación, terapia ocupacional, psicopedagogía, lo que denominan "lecciones de vida práctica", que consiste en enseñar a los niños a ser autónomos, vestirse, lavarse, comer... y, a última hora del día, colocar las férulas a los pacientes que las necesiten y corregir sus posturas en la cama. Todo ello, bajo la supervisión de la Hermana Jefa del Servicio.



**Plantillan, 60ko eta 70eko hamarkadetan, profesional berriak sartu ziren: erizainak eta fisioterapeutak.**

Nuevas profesionales, enfermeras y fisioterapeutas, se incorporaron a la plantilla en los años 60 y 70.

**1961ean eman zen lehen trebakuntza-ikastaroa, sendategiko Karitateko Ahizpei eta erizain sekularrei zuzendua bereziki. Hiru ikastaro ezberdin egin zituzten, eta guztira 67 ikaslek parte hartu zuten. Irudian, errehabilitazioko pertsonalari zuzendutako ikastaroa, Gorlizko sendategian bertan garatutako programa batekin.**

En 1961 se impartió el primer curso de capacitación destinado, especialmente, a las Hermanas de la Caridad y personal sanitario. Llegaron a impartirse tres formaciones distintas en las que participaron 67 alumnas. En la imagen, cursillo con un programa diseñado en el propio Sanatorio de Gorliz.





**Etengabeko kontaktutik, sarritan, txera handiko harremanak sortzen ziren. Batzuetan, osasun-langileek umeak eurekin eramaten zituzten etxera, asteburua igarotzera.**

El contacto constante generaba relaciones llenas de cariño. En ocasiones las profesionales sanitarias incluso se llevaban a los niños a su casa los fines de semana.

## 90EKO HAMARKADA. TALDE ESPEZIALIZATUAGOA / AÑOS 90. UN EQUIPO MÁS ESPECIALIZADO



**1994an, Gorliz Ospitalean 268 profesionalek egiten zuten lan, gehienak errehabilitazioaren arlo batean edo bestean aritzen zirelarik.**

En 1994 los profesionales que trabajaban en el Hospital Gorliz sumaban 268 personas, la mayoría de ellos centrados en los diversos aspectos de la rehabilitación.

## 2019. PROFIL PROFESIONALAK BEHAR BAKOITZERAKO / 2019. PERFILES PROFESIONALES ACTUALES









**Gaur egungo Gorliz Ospitaleko profesionalek profil egokiak dituzte eurek bideratu beharreko prozesu klinikoak atenditu ahal izateko; osasun alorrekoak ez diren beste profil batzuetako langileak ere badaude, pazienteei atentzioa eskaintzeko ospitaleko zerbitzuetan eta unitateetan. Ospitalizazio-unitateak daude, Kanpoko Kontsultak, Errehabilitazio Tratamenduak (fisioterapia, logopedia, okupazio-terapia, psikologia), Farmazia, Izpiak, Informatika, KSU, Harrera, PEAZ, Mantentzea, Arropa Zuriak, Biltegiak, Kalitatea, Segurtasun Klinikoa, Sukaldea, Garbiketa, Zaintza, Kudeaketa Ekonomikoa, Pertsonala eta Zuzendaritza.**

Hoy el Hospital Gorliz cuenta con profesionales del perfil que requieren los procesos clínicos que atiende, así como de perfiles no sanitarios para dotar al Hospital de los servicios y unidades necesarios para la atención de los pacientes. Dispone de Unidades de Hospitalización, Consultas Externas, UTR (tratamientos rehabilitadores: fisioterapia, logopedia, terapia ocupacional, psicología), Farmacia, Rayos, Informática, UGS, Admisión, SAPU, Mantenimiento, Lencería, Almacenes, Calidad, Seguridad Clínica, Cocina, Limpieza, Vigilancia, Gestión Económica, Personal y Dirección.











Bombardeo de Gernika. Foto Fundación Sabino Arana AI-043/194

Gerra zibilak 11 hilabetez astindu zuen Euskadi: 1936ko uztailaren 18tik 1937ko ekainaren erdi aldera arte. Urte hartako udaberrian Eusko Jaurlaritzak umeak ebakuatu zituen Frantziara, Britainia Handira, Belgikara eta Sobiet Batasunera. Maiatzaren 31tik aurrera atera zituzten Gorlizko Itsas Sendategitik paziente umeak eta langile batzuk, eta osasun-tresna eramangarriak: anestesia eta kirurgiarako materialak, botikina, X izpien aparatua, sukaldeko ontziak, mojen gauzak, eta umeen eta oheko arropak. Bizkaian, Gorlizko ospitalea izan zen guztiz hustu zen bakarra. Osasun Kontseilariak, Alfredo Espinosak, telegrama bidali zuen Baionako Eusko Jaurlaritzako ordezkaritzara egonleku egoki bat bila zezaten; eta sendategiko Karitateko Ahizpek gurasoei baimena eskatzeko ardura hartu zuten. Denek eman zuten, sei umerenek izan ezik; haiek nahiago izan zuten bertan geratu.

La Guerra Civil sacudió Euskadi durante once meses, desde el 18 de julio de 1936 hasta mediados de junio de 1937. En la primavera de ese año el Gobierno Vasco evacuó a los niños a Francia, Gran Bretaña, Bélgica y la Unión Soviética. A partir del 31 de mayo se sacó del Sanatorio Marino de Gorliz a los pacientes infantiles junto con parte del personal y el instrumental sanitario transportable: material quirúrgico y de anestesia, botiquín, aparato de rayos X, batería de cocina y menaje, mobiliario de las hermanas, ropa de cama y de los niños. El de Gorliz fue el único hospital vizcaíno que se evacuó en su totalidad. El consejero de Sanidad, Alfredo Espinosa, envió un telegrama a la delegación del Gobierno Vasco en Baiona para que buscara un emplazamiento adecuado y las Hermanas de la Caridad del sanatorio se encargaron de pedir permiso a los padres. Todos lo concedieron salvo los de seis niños, que prefirieron que se quedaran aquí.



**Ebakuazioa Goizeko Izarra yatean egin zen, nahiz eta ontzia horretarako prestatuta egon ez. Santurtziko portutik irten zen 1937ko ekainaren 10ean eta 13an, Baionarantz. Handik helmugaraino, Saint Christau bainuetxe-herria (Aspe harana, Pirinio Atlantikoak) 300 umeak eta 30etik gora helduak anbulantzietan eraman zituzten. Uztailaren 14an eta abuztuaren 3an, 160 ume baino gehixeago handik Berck-Plage itsas sendategi ezagunera eraman zituzten, Calaiseko itsasertzera. Haiekin joan ziren 8 laguntzaile, mediku bat eta kapilau bat, denak euskaldunak.**

La evacuación se llevó a cabo a bordo del yate Goizeko Izarra, un barco no preparado para este cometido, que zarpó del puerto de Santurtzi los días 10 y 13 de junio de 1937 rumbo a Baiona. Desde aquí a su destino, en la localidad balnearia de Saint Christau (Valle de Aspe, Pirineos Atlánticos), los 300 niños y más de 30 adultos fueron trasladados en ambulancias. El 14 de julio y el 3 de agosto poco más de 160 niños fueron llevados desde allí al reconocido Sanatorio Marino de Berck-Plage, en la costa de Calais. Les acompañaban 8 auxiliares, un médico y un capellán vascos.






**Berck-Plage Itsas Sendategiak izen handia zeukan nazioartean hezur eta artikulazioetako tuberkulosiaren eta tuberkulosi eskrofulatsuaren tratamenduan.**

El Sanatorio Marino de Berck-Plage gozaba de un reconocimiento internacional en el tratamiento de la tuberculosis osteoarticular y escrofulosa.



**Saint Christaun umeak hiru hoteletan banatu zituzten. Batzuek egonaldi labur hura –bi hilabete eskas– oporrak izan balira bezala gogoratzen dute; beste batzuek familiaren eta lagunen hutsa sentitzen zuten. Haietako hamarren batek ihesa ere antolatu zuten, baina hondatu egin zen, txikienetako batek ezkutuko plana mojetako bati azaldu zionean.**

En Saint Christau Los niños fueron distribuidos en tres hoteles. Algunos recuerdan esta breve estancia -no llegó a dos meses- como unas vacaciones, otros añoraban a su familia y amigos. Una decena de ellos llegaron a organizar una fuga que se frustró porque uno de los más pequeños reveló el plan secreto a una de las hermanas.


Foto Fundación Sabino Arana AJP-002/15 1

**Karitateko Ahizpek, irudian Gregoria Agirre, besoetan eraman zituzten ibiltzeko gauza ez ziren umeak, Goizeko Izarra yatean ontziratzeko.**

Las Hermanas de la Caridad, sor Gregoria Agirre en la imagen, llevaban en brazos a los niños que no eran capaces de andar para su embarque en el yate Goizeko Izarra.


Foto Fundación Sabino Arana AJP-002/153

**Aparatu ortopedikodun umeek ohatilan egin zuten ontziko bidaia. Kapitaina haietako bat agurtzen ari da. Baionako portura heldu ondoren, anbulantzian eraman zituzten sendategira.**

Los niños y niñas con aparatos ortopédicos viajaron a bordo del barco en camilla. El capitán saluda a una de ellas. Una vez en el puerto de Baiona eran trasladados al sanatorio en ambulancias.

**EBAKUATUTAKO LANGILEAK, GAIXOAK ETA MATERIALA /** PERSONAL, PACIENTES Y MATERIAL EVACUADOS

| Ebakuazioak<br>Evacuaciones | Umeak<br>Niños | Karitateko Ahizpak<br>Hermanas de la Caridad | Laguntzaileak<br>Auxiliares |
|---|---|---|---|
| Ekainak 10 junio | 139 | 6 | 14 |
| Ekainak 13 junio | 131 | 13 | |

**2 idi + 2 behi / Oheko arropak eta beste batzuk / Sukaldeko eta jantokiko ontziak / Liburutegia / X izpien aparatua / Botikina / Tresneria**
**Karitateko Ahizpen arropak eta gauzak.**
2 bueyes + 2 vacas / Camas ropa y diversos / Batería cocina y comedor / Biblioteca / Aparato Rayos X / Botiquín / Instrumental
Ropa y utensilios Hermanas de la Caridad.

**Lehenengo itzulera Francoren tropak Bilbon sartu ondoren egin zen. Aldundi berriak berriro ekarri nahi izan zituen Saint Christaun zeuden umeak. Abuztuaren 7an, Zaragozako kontsul frantziarrak, hainbat agintari eta Gorlizko Itsas Sendategiko zuzendari Enrique Ornilla laguntzaile zituela, itzulera antolatu zuen: 109 ume, 19 Karitateko Ahizpa, eta haiekin zeuden 11 laguntzaile. 1937ko abuztuaren 9an umeak zekartzan trenak muga zeharkatu zuen. Jendetzak egin zien ongietorria Bilbon Atxuriko geltokian.**

El primer retorno se produjo una vez que las tropas franquistas habían entrado en Bilbao. La nueva Diputación quiso traer de vuelta a casa a los niños que seguían en Saint Christau. El 7 de agosto el cónsul de Francia en Zaragoza, acompañado de diversos cargos y del director del Sanatorio Marino de Gorliz Enrique Ornilla, organizó la expedición de vuelta de los 109 pequeños, 19 Hermanas de la Caridad y 11 auxiliares que les acompañaban. El 9 de agosto de 1937 un tren cargado de niños cruzaba la frontera. Una muchedumbre les daba la bienvenida en la estación bilbaína de Atxuri.


LA GACETA DEL NORTE
Anoche llegaron a Bilbao los enfermitos de Górliz
Una gran muchedumbre acudió a la estación de Atxuri a manifestarles su alegría por el feliz regreso

**Ume talde bat, Karitateko Ahizpekin eta laguntzaileekin, Frantziako aduana zeharkatzen ari da itzulerako lehen bidaian. Harrera egitera joan zitzaizkien Antonio Maseda, sortu berria zen Umeen Babeserako Batzordeko presidentea, eta Juan Troncoso Mugetako komandantearen emaztea.**

Un grupo de niñas y niños junto con Hermanas de la Caridad y auxiliares cruza la aduana francesa en el primer viaje de vuelta. Para recibirlos se desplazaron hasta allí el presidente de la recién creada Junta de Protección de Menores, Antonio Maseda y la señora del comandante de Fronteras, JuanTroncoso.





**1937ko abuztuaren 10ean, La Gaceta del Norte egunkariak azalean atera zuen gertakaria.**

La Gaceta del Norte del martes 10 de agosto de 1937 dedicó la portada a este acontecimiento.

**Bigarren bidaia, Berck-Plagera eraman zituzten umeena, 1939ko abuztuaren 30ean izan zen. Gerra Zibila apirilean amaitu zen. Gorliztik irten eta bi urte geroago berriro sentitu zuten euren hondartzako haize freskoa, pinuen usaina, eta oheko izara goxoak.**

El segundo retorno, el de los niños que habían sido trasladados a Berck Plage, tuvo lugar el 30 de agosto de 1939. La Guerra Civil había terminado en abril. Dos años después de haber salido de Gorliz se reencontraban con la brisa de su playa, el olor de su pinar y las sábanas de sus camas.



**1937ko abuztuaren 9an heldu ziren Atxuriko geltokira. Han, festa giroan, hainbat agintari zeuden euren zain.**

El 9 de agosto de 1937 llegaron a la estación de Atxuri donde, en un ambiente festivo, les esperaba un nutrido grupo de autoridades.



ITZULI EZ ZIRENAK

**Ume batzuen gurasoak Frantzian zeuden, errefuxiatuta. Haiek bertan geratu ziren. Beste 10 ume ere ez ziren itzuli. Zoritxarrez, hil egin ziren Berck-Plageko sendategian.**

LOS QUE NO VOLVIERON

Aquellos cuyos padres se encontraban refugiados en Francia se quedaron allí. Tampoco volvieron diez niños que, desgraciadamente, fallecieron durante su estancia en el sanatorio de Berck-Plage.






## OBJEKTU MEDIKO ETA ZIENTIFIKOEN BILDUMA ETA AHIZPA KLARISEN ABITOA
## COLECCIÓN DE OBJETOS MÉDICOS Y CIENTÍFICOS QUIRÚRGICO Y HÁBITO HERMANAS CLARISAS



**XX. mende hasieratik aurrera Gorlizko ospitalea objektu mediko eta zientifikoen bilduma aberats baten jabe da. Euskadiko ondare zientifikoa aberasten duten erakusgai bikainak.**

El Hospital Gorliz atesora una rica colección de objetos médicos y científicos desde principios del siglo XX. Un excelente muestrario que enriquece el patrimonio científico de Euskadi.

**Karitateko Alaben antzinako abitu osoa.**
**Ospitalean erabilitako mantal zuria.**
**Madrilgo Probintziako Karitateko Alaben Museoa. Madril**

Hábito antiguo completo de las Hijas de la Caridad.
Bata blanca de las usadas en el hospital.
Museo de las Hijas de la Caridad. Madrid

Osakidetza

GORLIZ OSPITALEA
HOSPITAL GORLIZ

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD